

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Asparrengo Udalaren enplegu publikoa egonkortzeko eskaintza, 2022

Alkatetzaren egungo ebazpen bidez, eta udal honetako ordezkari sindikalekin negoziatu ondoren, honako hau erabaki da:

Lehenengoa. Asparrengo Udalaren enplegu publikoa egonkortzeko eskaintza, 2022koa, onestea, era honetan:

– Enplegu Publikoan Behin-Behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko plazak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etenik gabe betetako lanpostuak izateagatik:

Funtzionarioa

1. Eskala: administrazio orokorra. Azpieskala: administrariak. Izena: administrari laguntzailea-II. Taldea: C2. Destino osagarriaren maila: 18. Titulazioa: DBHko gradua, eskola gradua, LH1 edo baliokidea. Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: iraungita.

2. Eskala: administrazio orokorra. Azpieskala: Menpekoak. Izena: Eskola publikoko atezaina. Taldea: AP. Destino osagarriaren maila: 14. Titulazioa: Eskola ziurtagiria. Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: iraungita.

Langile lan kontratadunak

3. Izena: musika eskolako musika-hizkuntzako irakaslea. Taldea: C2. Destino osagarriaren maila: 26. Titulazioa: Musika-irakaskuntzen erdi mailako gradua (1966ko plana) edo baliokidea. Arduraldi osoa. Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe.

4. Izena: musika eskolako piano irakaslea. Taldea: C2. Destino osagarriaren maila: 26. Titulazioa: Musika-irakaskuntzen erdi mailako gradua (1966ko plana) edo baliokidea. Arduraldi partziala, matrikulazioaren arabera. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

5. Izena: musika eskolako klarinete irakaslea. Taldea: C2. Destino osagarriaren maila: 26. Titulazioa: Musika-irakaskuntzen erdi mailako gradua (1966ko plana) edo baliokidea. Arduraldi partziala, matrikulazioaren arabera. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

6. Izena: musika eskolako akordeoi eta trikitrixa irakaslea. Taldea: C2. Destino osagarriaren maila: 26. Titulazioa: Musika-irakaskuntzen erdi mailako gradua (1966ko plana) edo baliokidea. Arduraldi partziala, matrikulazioaren arabera. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

7. Izena: musika eskolako metal irakaslea. Taldea: C2. Destino osagarriaren maila: 26. Titulazioa: Musika-irakaskuntzen erdi mailako gradua (1966ko plana) edo baliokidea. Arduraldi partziala, matrikulazioaren arabera. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

8. Izena: Zerbitzuetako langilea. Taldea: AP. Destino osagarriaren maila: 14. Titulazioa: Eskola ziurtagiria Arduraldi osoa. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta berorren laburpen bat EHAAren ere.

Hirugarrena. Erabaki hau interesdun guztiei jakinaraztea eta haiei aukeran dituzten errekurtsoen berri ematea.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoarekin. Aukerako berraztertze errekurtsua jartzea erabakitzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri errekurtsua berariaz ebatzi arte edo isiltasunez ezetsi arte. Dena den, egoki jotzen duen beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal izango da.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Araia, 2022ko maiatzaren 10a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ